

Australopithecus sediba, eboluzioaren mosaiko bat

Fosilen sei ikerketaren emaitzak argitaratu dira aldi berean, eta hezur bakoitzak istorio ezberdin bat kontatzen du



Australopithecus sediba espeziearen eredu bat, Hegoafrikako Malapa kobazulotik ateratako hezurretan oinarritua. ARG.: © LEE R. BERGER/UNIVERSITY OF THE WITWATERSRAND.

Australopithecus sediba-ren hezurren sei ikerketaren emaitzak argitaratu ondoren nabarmen azaldu da hominidoen eboluzioaren konplexutasuna.

Adituen ustez, ikerketak mosaiko anatomiko bat osatu du oso ondo kontserbatutako aztarnetatik abiatuta. Mosaikoa ikusita, espeziea deskribatu zuen Lee Berger antropologoak idatzi du hain ondo kontserbatu ez diren fosilen kasuen interpretazioa berraztertu beharko litzatekeela.

Duela 2 milioi urteko hezurak 2008an aurkitu zituzten, Malapa kobazuloan (Johanesburgotik gertu).

Bi urte geroago, Bergerrek izendatu zuen espezie berri bat aztarna horietatik abiatuta: *Australopithecus sediba*.

Adituen ustez, hiru aleen hezurak dira; haietatik, ale bakarra erabili zuten berez espeziea deskribatzeko, baina ikerketa hiruren aztarnekin egin dute. Guztira, ikertzaileek hortzak, barailak, toraxeko eta besoetako hezur asko, tibiai eta bizkar hezuraren puska asko aztertu dituzte.

Oso azterketa osoa da, erakusten baitu *Australopithecus sediba* nola ibiltzen zen, nola mugitzen zen eta nola egiten zuen hozka. Lana sei ikerketa-taldekin egin dute, eta orain seien emaitzak aldi berean argitaratu dituzte *Science* aldizkarian, Bergerren beraren sarrera batekin batera.

Emaitza, “mosaiko anatomikoa”, puzzle moduko bat da, baina

berezitasun batekin: puzzlearen pieza bakoitzak kontatzen duen istorioa ezberdina da. Hain zuzen ere, kasu batzuetan, bi hezur-taldetako azterketek kontrako ondorioetara eramaten dute.

Hortzen azterketa filogenetikoaren arabera, *Australopithecus sediba* Hegoafrikan aurkitutako *Australopithecus africanus* espeziearen antzekoa da, baina ekialdeko Afrikan azaldu diren ezberdina (Lucy ospetsuarena, adibidez). Barailen azterketaren arabera, aldiz, *Australopithecus africanus* ezberdinak dira.

Besoa, besaburua, sorbalda eta, oro har, toraxeko hezurak primitiboak dira. Zuhaitzetan eroso ibiltzeko aproposak dira, adituen ustez. Tximino-itxura handiagoa dute hominido-itxura baino. Bizkar-hezuraren orno-kopurua eta kurbaturak, aldiz, *Australopithecus africanus* ondorengoak eman arren, *Homo erectus* jakin baten bizkar-hezuraren antzekoagoak dira. Eta *Australopithecus sediba* hantetako hezurrek hankabikoien ezaugarriak dituzte.

Azkenean, azterketak erakutsi du eboluzioa ez dela prozesu lineal bat izaten. *Australopithecus sediba* ez da tximinoetatik hominidoetarako bidearen urrats bat. Ezaugarri batzuk tximinoenak ditu eta beste batzuk hominidoenak, baina Bergerrek nabarmentzen duen bezala, konbinazio horrek erakusten duen bilakaera oso ezberdina da beste australopitecoek eta lehen hominidoek erakusten dutenarekin alderatuta. Eboluzioaren mosaiko bat da. ●